

**POLITIKA OROKORREKO EZTABAIDA GIPUZKOAKO BATZAR
NAGUSIETAN**

**Markel Olano Arrese
Diputatu nagusiaren mintzaldia
2018-09-25**

1. SARRERA

Batzar Nagusietako lehendakari andrea, foru diputatuak, batzarkideak eta gaur gurekin diren pertsona guztiak: egun on guztioi eta eskerrik asko osoko bilkurara etortzeagatik.

Gaurkoa politika orokorreko azken eztabaida izango da legegintzaldi honetan. Eztabaidan zehar saiatuko gara Gipuzkoako Foru Aldundiak azken hiru urtean garatu duen jardueraren berri zehatza ematen, hirugarren ekitaldiari interes berezia eskainiz.

Zaila da, benetan, ordubete pasatxoko denboran azken hamabi hilabeteetan zehar garatutako jarduera guztia laburtzea. Ahalegina egingo dut alderdirik garrantzitsuenak azaltzen, eta zuek egiten dituzuen galdera eta ñabardurak entzuteko prest izango nauzue erantzunen txandan.

Lurraldearen egoera sozioekonomikoaren diagnostikoarekin hasiko naiz. Ondoren, legegintzaldiko konpromisoen betetze mailaz arituko naiz: horiek Kudeaketa Plan Estrategikoan jasota daude. Eta etorkizunera begira amaituko dut, Etorkizuna Eraikiz-etik bultzatutako erreferentzia zentro eta proiektuetan sakonduz, horiek Gipuzkoaren etorkizuna sendotzera bideratuta daude-eta.

2. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2.1. Gipuzkoako egoera sozioekonomikoa

Adierazle guztiek erakusten duten moduan, egoera sozioekonomikoa hobera ari da egiten Gipuzkoan. Horren froga nagusia langabezia-tasa da, gaur egun zortzi puntutik behera baitago, zehazki % 7,7an. Hobekuntza horrek izugarri pozten gaitu; are gehiago kontuan harturik horixe zela legegintzaldiaren hasieran kudeaketa-planean finkatu genuen helburuetako bat, nahiz oraindik ere 26.000 pertsona dauzkagun langabezian. Horiek lan munduan ahalik eta lasterren sartzea da gure lehentasuna, bereziki gazteen eta luzaroko langabeen kolektiboetara bideratuta gure ahalegina.

Badakizue ez naizela autokonplazentziazalea eta, gipuzkoarra izaki, ez zaidala harropuzkeriaz hitz egitea gustatzen, baina datuek bide positiboa erakusten dute.

Barne Produktu Gordinak 2,9 puntu irabazi ditu bigarren hiruhilekoan; gure enpresen salmentak % 5,4 hazi dira urteko lehen seihilekoan zehar; enpleguak % 4,4 egin du gora; soldata-masa % 5,3 igo da, eta zerga-bilketa % 4,6; kontu egin: aurreko urteko abuztu arte baino 134 milioi gehiago. Langabezia-tasa bera ere % 8tik behera dago, 7 urtean lehen aldiz, eta jarduera-tasa % 56,4koa da jada. Azkenik, azpimarratuko nuke Gipuzkoako industriaren produkzioak 6,5 puntuz egin duela gora oraindik amaitu ez den urte honetan zehar, eta gaur egun BPGaren % 27,6 dela.

Aldundiak bultzatutako politika ekonomikoak ere fruitua ematen hasi dira. Ekonomia Suspertzeko Planak 3.800 enpresari lagundu die, eta 510 enpresa berri eta 2.121 lanpostu sortzen lagundu du halaber. Era berean, arrisku egoeran zeuden zenbait enpresa aurrera atera ahal izan dira, Ekonomia Sustapeneko Departamentutik sortutako laguntza-protokoloari esker.

Aurtengo Errentaren kanpaina onak garbi erakutsi du enplegu eta soldatetan izandako hobekuntza, eta Sozietateen gaineko Zergako bilketak izan duen hobekuntzak erakusten du gure enpresak hasi direla jada krisiaren ondorioak gainditzen.

Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistema bitxi preziatua dugu, babestu beharreko bitxia, seguruenik tresnarik garrantzitsuenetakoa delako berdintasunezko gizartea lortzeko, bazterketa orotatik urrun. Horrek izugarri harro sentiarazten nau. Izan ere Gipuzkoak berezitasun bat du, 4.500 boluntario-elkarte izatea sostengu, gehien-gehienak arlo sozialean.

Datuetara jotzen badugu, ikusiko dugu lurraldeko gizarte zerbitzuek 30.000 pertsona baino gehiago atenditzen dituztela gaur egun. Horietatik 20.000 adinekoak dira, eta 1.500 adingabeak. Gainera, 544 pertsonaren tutoretza dute. Eta, bilakaerari erreparatuta, badirudi kopuru horiek gora eta gora egingo dutela, gizartea pixkanaka zahartzen doan heinean. Gaur egun, 80 urtetik gorako pertsonak 50.000 baino gehiago dira Gipuzkoan, 2000. urtean zirenak halako bi, alegia, eta adituek diotenez 2031rako 68.000 izango dira. Hau da, gaurko kopurua baino % 36 gehiago. Gainera, horietatik 25.800 mendekotasun egoeran dauden adinekoak izango dira, gaur halako bi ia.

Iaz pozteko arrazoia izan genuen, Gipuzkoan desberdintasuna jaitsi zela ikusi genuenean. Eta, aurten, are pozarren egon gaitzke, zeren eta GINI koefizientearen arabera -horixe baitugu adierazle

garrantzitsuena- desberdintasuna puntu bat jaitsi da. Hau da, 2014ko 26,3tik 2017ko 25,3ra jaitsi gara eta, beraz, Europako onenengandik hurbilago gaude. Espainia, berriz, Europako 30,8ko puntuko batez bestekoa baino lau puntuz okerrago dago.

Legegintzaldiaren hasieratik, helburu hartu genuen Gipuzkoa desberdintasun txikieneko lurraldeetako izatea arlo sozioekonomikoan, generoaren eta hizkuntzaren. Eta aipatua bezalako albistek indarra ematen digute, bide beretik lanean segitzeko.

2.2. Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen analisia

Hurrengo minutuetan zehar, Aldunditik bultzatutako politika publikoen analisia egiten saiatuko naiz. Dakizuen bezala, Kudeaketa Plan Estrategikoa izan da gure bide-orria hiru urte honetan zehar. Helburuak lortzeko neurri zehatzak ezarri genituen, eta horien betetze maila neurtzeko adierazleak ere bai. Eta, ondoren azalduko ditudan emaitzak ikusirik, oso ozen esan dezaket emandako hitza bete dugula.

Kudeaketa Plan Estrategikoan finkatutako helburuei erreparatuz gero, ikusten dugu oso betetze maila altua lortu dugula. Zehazki, departamentuetako 50 helburuen aurrerapen maila batua eta helburu horien aurrekontuetako betetze maila, 2017an, % 95ekoa izan da, 2016an lortutakoaren parekoa alegia.

Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako bost helburu estrategikoei dagokienez, honako balorazioa egin dezakegu:

1) Ekonomiaren susperraldia finkatzea

Langabezia-tasa oso eboluzio positiboa izaten ari da; 2015eko % 12,7tik 2018ko bigarren hiruhilekoko azken balioak eman duen % 7,7ra jaitsi da. Hau da, legegintzaldiaren amaieran jarri genuen % 8ko helmuga gainditu eta beherago gaude.

2) Gure gizarte ongizate eta kohesio eredu sendotzea

Helburu estrategiko honen aurrerapen maila neurtzeko, pobrezia eta bazterketa arriskuaren tasa (AROE) 2014ko % 19,5etik legegintzaldiaren amaieran % 18ra jaistea finkatu zen. Ikusten dugu 3,6 puntuko hobekuntza gertatu dela; horrenbestez, pobrezia tasa % 16,7koa da, legegintzaldiaren amaierarako finkatutako % 18ko helburutik oso azpitikoa alegia, Espainia horretatik oso urrun geratzen den bitartean, % 26,6an hain zuzen.

3) Gipuzkoa modernizatzeko pendiente dauden proiektuei ekitea

Kudeaketa Plan Estrategikoak bederatzi proiektu jasotzen ditu legegintzaldi honetan zehar garatzeko. Horietan guztietan aurrerapen maila oso positiboa da, alderdi kuantitatiboan eta kualitatiboan, geroago garatuko dugun moduan.

4) Gipuzkoako Gobernu atzera asmatzea

Helburu honen eboluzioa ere ona da. Izan ere, herritarrek Foru Aldundiarekiko duten konfiantza maila 5,25 puntukoa izatetik 5,56 puntura izatera igaro da, ekainean egindako inkesta baten arabera.

5) Herritarren arteko bizikidetzaren finkatzea

Herritarren arteko bizikidetzaren finkatzeari dagokionez, balorazioa 6,80tik 6,76ra igaro da 2018ko ekainean. Beraz, lanean jarraitu behar dugu legegintzaldi osorako finkatutako % 8ko hobekuntza lortu ahal izateko.

3. KONPROMISOAK BETETZEA

Hurrengo blokea hasteko, konpromisoak betetzeaz arituko bainaiz, esan nahi dut bete egin dugula herritarrei emandako hitza. Harropuzkeriarik gabe diot, lan eginaren gogobetetasunez, gobernu osatzen dugun alderdi biok lan ona egin dugula hiru urte honetan.

Legegintzaldiari hasiera emateko programa-planteamendu argia genuen, hurrengo minutuetan zehaztuko ditudan bederatzi erronka estrategikoetan bildua.

Uste dut aitortzekoa dela Gipuzkoaren onerako politikak aurrera ateratzeko bi alderdiok egin dugun lana eta ahalegina. Ideologia desberdinetatik abiatu, denbora honetan zehar jakin dugu bat egiten eta elkarrekin aurrera jotzen. Ez da beti kontu samurra izan. Ez dut hori ukatuko. Baina hitz egiten jakin dugu, eta eskuzabalak izaten, akordioak iristeko unean, biok argi genuelako helburua: Gipuzkoari behar zuen bultzada ematea.

Hemendik, egindako lanagatik eskerrak eman nahi dizkizuet zortzi diputatuei, eta eskatu horrelaxe segi dezazuela, lanean, legegintzaldiko azken unera arte.

Aldundira iritsi ginenean, gizartean sententzia zen Gipuzkoa paralisian murgilduta zegoela, eta orain zeharo gaituta da hori. Ekonomia suspertzen ari da, politika publikoek erabateko iraultza egin

dute, eta herritarrak dagoeneko ez daude iraganeko arazoekin kezkatuta; orain etorkizuneko erronkei begiratzen diete. Zenbait estrategia -Etorkizuna Eraikiz, kasu- Gipuzkoaren etorkizuna diseinatzeraz bideratzen dira, eta iraganeko eztabaidek, hondakinei eta inposizioei buruzkoek, beste gai berritzaile eta aitzindari batzuei utzi diete lekua, zibersegurtasuna, elektromugikortasuna, ikus-entzunezkoen sorrera edo klima aldaketa dituztela gai. Gipuzkoak etorkizunera begiratzen du, eta gipuzkoarrak parte hartzen ari dira etorkizun horren eraikuntzan.

Ondoren, Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotzen diren bederatzita proiektu horietako bakoitzari denbora pixka bat eskainiko diogu, bakoitzak izan duen garapena argitzearen.

3.1. Ekonomia suspertzen laguntzeko plana

Jarduera ekonomikoa bultzatzeko politiken indarrez, gaur egungo aldeko koiuntura ere kontuan hartuta, Gipuzkoa sendo ageri da, indartsu, ekonomiaren ikuspegitik.

Horretarako funtsezko piezetako bat izan da lehen aipatutako Ekonomia Suspertzeko Plana; izan ere, urteko 50 milioiko kopuruarekin, aukera eman du Gipuzkoako ekonomia finkatzeko, industriaren sektorea eta merkataritzaren sektorea sustaturik eta bultzatuta, eta enpresak lehiakorrago eta gaituago egin ditu, mundu mailako merkatuetan lan egitera begira.

Apustu sendoa egin dugu gure enpresei laguntzeko, batez ere gure ETEei (Enpresa Txiki eta Ertainak). Eta kalitatezko enpleguak sortzea egon da Aldundiaren sustapen ekonomikorako politiken erdigunean. Asko eta asko izan dira Ekonomia Suspertzeko Planaren esparruan 2018an zehar garatutako jarduerak.

Estrategia argia bultzatu dugu, Aldundia enpresa gipuzkoarren aliatu bihurtzeko. Hiru urtean, 500 enpresa baino gehiagorekin elkartu gara edo bisitatu ditugu, eta bitartekaritza eta berrindustrializazio plan bat aktibatu dugu egoera zailean dauden konpainientzat, oso emaitza onak lortuz gainera.

Aldi berean, 2018an zehar eta eskualde garapeneko gure agentziekiko elkarlanean, 10 plan bultzatu dira kalitatezko enplegua sustatzeko.

Gainera, Gipuzkoak helburu handiko plan bat du talentua sortzeko, atxikitzeko eta erakartzeko, eta atzerrian bizi diren gipuzkoar profesionalak atzera gurera ekartzeko. 2018an Gipuzkoa Talent estrategiaren ardatz nagusiak zabaldu ditugu. Harrera-zerbitzu iraunkorra dugu, talentua erakartzeko, eta Gipuzkoako lau

unibertsitateekin batera, Talentia profesionalizazio programa jarri dugu abian; dagoeneko 200 ikasle baino gehiago ari dira horren onurak jasotzen. Gainera, programa berri bat sortu dugu, enpresetan talentua eta ikaskuntza sustatzeko. Ildo horretatik, Gabonetan antolatuko dugun Gipuzkoa Talent Forum-ekin jarraituko dugu. Eta ez dugu ahantziko Fellows programa, berriro ere aukera eman duelako kualifikazio maila altu-altuko talentu zientifiko-teknologikoa erakarri eta atxikitzeko.

Nazioartekotzea funtsezkoa izan da Aldunditik diseinatu eta aktibatutako programetan. Horregatik, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, 84 enpresa baino gehiagori lagundu diegu atzerrian finkatzen, produktu berriak merkatura ateratzen, eta nazioarteko lizitazio handietan parte hartzen.

Ekonomia suspertzeko planaren beste zutabeetako bat gure gaitasunak eta pertsonak eraldatzea bultzatzea da, eta eraldatze horretan laguntzea, Gipuzkoa berritzaileago eta adimentsuagoa eraikitzeko, fokua RIS-3 estrategiaren esparruan jarrita.

Gipuzkoa I+Gren arloan puntako eskualdea izan dadin, hobetzen ari gara Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean ditugun agenteei eman laguntza, zuzkidura handiagotu batez. Programa hori enpresetako eta Euskal Sareko zentroetako I+G unitateetara zuzenduta dago, I+G proiektuak garatzeko eta goi mailako ekipamendu zientifikoa erosteko. Horrek guztiak 15 milioi eurotik gorako inbertsio globala eragingo du, aurreko ekitaldikoa baino % 20 handiagoa.

4.0 industriarantz jotzeko gure apustuarekin segituz, aurten enpresa txikienetan jarri dugu fokua eta, horiei zuzendurik, bi ekimen oso garrantzitsu bultzatu ditugu.

Alde batetik, Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreraturako Sarea programarekin segitzen dugu, eta horren paraleloan, 20 eta 100 langile bitarteko industriako enpresetarako bisiten programarekin jarraitzen dugu, ETEak 4.0 Industrian eta fabrikazio aurreratuko eredian sar daitezen bultzatzeko.

2018koa urte garrantzitsua izaten ari da Aldundiak ekintzailtzari ematen dion laguntza sendotzera begira. Lehen seihilekoan zehar 42 enpresa-proiektu berriri lagundu zaie. Aurreikuspenen arabera, urte amaierarako sortu berriko 80 enpresa baino gehiago izango dira lagunduak. Gainera, nazioarteko enpresa-azelerazioko programa berri bat aktibatu da, Mass Challenge azeleratzaile iparramerikarrarekiko elkarlanean. Eta Biozientziak Gipuzkoa Fundaziotik 3 enpresa-proiektu berri bultzatu dira.

Dakizuen moduan, Sustapen Ekonomikoko Departamentuaren barnean dira Landa Inguruneko eta Lurralde Oreekako zuzendaritzak. Horietatik ere lan egin da lehen sektorea eta horren inguruko ekonomia indartzeko. Landa inguruneak erakargarriago eta lehiakorrago bihurtzeko helburuaz, inbertsioetarako laguntzak onartu dira, bekak eman zaizkie lehen sektoreko hogeitaz gazteri, eta basozaintzarako laguntzak handitu dira.

Azken kontu honen inguruan aipamen bat egin behar dut, gure lurraldeko basoei kalte latza eragiten ari zaien zerrenda marroiaren gaitzari buruz. Aldundia basozaintzaren sektorearekin eta beste erakundeekin ari da lanean, arazo horri aurre egiteko. Eta horretarako beharko den ahalegin ekonomikoa definitze ari gara.

Bestetik, landa munduko sektore-elkarteen partaidetza bultzatzen segitu dugu, 25 ordezkari parte hartzen ari diren dinamikaren bitartez. Ekimen horrek aukera eman du landa munduan lan egiten duten pertsonen behar eta erreibindikazio errealak entzuteko, eta LandaGipuzkoa plus programatik zenbait jarduera bultzatzeko. Besteak beste, baserrietarako bideak eta baserri munduko elektrifikazioa hobetu dira; sustapen ekonomikorako proiektuei lagundu zaie, eta ustiategien konektagarritasuna hobetuko da, banda zabal ultra-bizkorraren bitartez.

Orain arituko naiz Ogasun Departamentuaz eta lurraldeko ekonomia eraldatzearen egiten ari garen lanaz.

Sustapen Ekonomikoan, legegintzaldiaren hasieran identifikatu genituen hiru alderdiak landu ditugu: lurraldeko enpresak zurkaiztea, proiektu berriak laguntzea eta sustatzea, eta proiektu eta pertsonak lurraldera erakartzea.

Erabakitzekeo guneak lurraldean mantentzearen, araudi bat garatu dugu -aurrekoa baina doituagoa- langileek enpresaren kapitalean parte har dezaten sustatzeko.

Proiektu berrietarako pizgarri eta laguntzen arloan, garrantzia eman diogu inbertsio pribatua start-upak eta dimentsionatze proiektuak dituzten enpresa txikiak finantzatzera bideratzeari. Horretarako, araudi berritzailea garatu dugu, Erresuma Batuko EIS/SEIS eskemetan oinarrituta, eta mundu mailako praktika onenak identifikatzeko eta gureratzekeo bidetik.

Lurraldera pertsonak eta proiektuak erakartzearen, Araba eta Bizkaiarekin batera ezarri dugun araudi berria azpimarratuko nuke; horren helburua gaitasun handiko pertsona eta proiektu berriak zein Gipuzkoara itzuli nahi duen talentua atzera gureratzea da.

Helburu horiek lortzeko fiskalitatea ezarri dugu; progresibitatearen eredu den fiskalitatea, ezen PFEZren bitartez biltzen dugunaren % 70 gehien irabazten duten zergadunen % 25ek ordaintzen dute.

Ondarearen gaineko Zerga ere aldatu dugu, atzean utziz sustapen ekonomikorako kaltegarria eta, horrenbestez, gure gizarte ongizaterako negatiboa izan zen erreforma.

Batzuek leporatu ziguten gutxi batzuen alde ari ginela egiten, baina egitateek, eta batez ere datuek, kontrakoa erakutsi dute. Gure garapen ekonomikorako oztopo bat kendu dugu, eta zerga harmonizatu dugu, baina horretaz gain gero eta gehiago bildu dugu, urtez urte, herrialde gehienek kendu duten figura bat baliatuta. Zehazki, 2014ean, aurreko legegintzaldiaren azken urtean, Aberastasunen eta Fortuna Handien gaineko Zergaren kanpainak 59 milioi euro bildu zituen; 2017an, aldiz, 74,5 milioi bildu ziren kontzeptu horretan. Hau da, 15,5 milioi gehiago.

Bestetik, eragiten zigun finantza-arrisku nagusia desagerrarazi ahal izan dugu: Kupoaren likidazioko desadostasuna. Era berean, hobetu egin dugu Kontzertu Ekonomikoa, erakunde arteko akordio baten bitartez; zerga erreforma bat egin dugu; Euskal Zuzenbide Zibilaren fiskalitatea inplementatu dugu; iruzurraren kontrako borrokaren gaineko kontzientzia Araba eta Bizkaiko ikastetxeetara zabaldu dugu, eta baita unibertsitateetara ere; eta informazioa trukatzeko akordioak sinatu ditugu zenbait instituziorekin.

Iruzurraren kontrako borroka helburu estrategikoa izan dugu, legegintzaldiaren hasieratik. Pertsonen dagokienez, 2018an amaituko dugu legegintzaldiaren hasieran iragarritakoa, hau da, 45 pertsona gehitzea, eta aldi berean beste 35 pertsona sartzeko LEP bat aktibatu dugu, gure konpromisoa betez.

Inbertsio handiak egin ditugu, era berean, teknologian; esate baterako, gure Big Data plataforma martxan jarri dugu, eta lehen Ogasuna gara, errenta aitorpenera begira hodeian plataforma bat jarri duena zergadunen eskura.

Denon erantzukizuna da gizartea kontzientziatzea, iruzur egiten duten pertsonak, insolidarioak izateaz gain, gizarte ongizatea arriskuan jartzen ari direla ulertzeko.

Aurrekontuan eta finantzetan zorroztasuna eta kudeaketa ona lehentasuna izan dira gure eguneroko jardueran. Legegintzaldiaren hasieratik, argi genuen erronka handiak genituela. Alde batetik, proiektu estrategiko garrantzitsu batzuk finantzatzea: besteak beste, Deskargako errepidea edo Gipuzkoako Ingurumen Gunea; eta, erronka beraren beste aldean, Gizarte Politikako gastua blindatzea

eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Legeak ezarritako baldintzarik zorrotzenak betetzea.

Gaur egun, harro esan dezakegu proiektu estrategikoak bideratuta ditugula, gizarte politiketarako diru zuzkidura gehitu egin dugula, eta, orobat, derrigortutako zero defizita eta gastu erregela bete ditugula.

Era berean, iaz ekin genion zorra murrizteko bideari, gure finantza gaitasuna hobetzen joatearren. Hamar urte igaro dira jada azken krisialditik. Ez dakigu noiz, baina unereren batean berriro aldatuko da haizea, eta ziklo negatiboa iritsiko da berriro. Prestatzen joan behar dugu, unea iristen denean finantza gaitasuna eta erabakitzeaskatasuna izateko.

Baliabideak kudeatzeak eta esleitzeak berekin behar du gure arkitektura instituzionaletik ateratzen den finantza-eredua egoki diseinatzea, eta horri behar duen jarraipena egitea. Ekarpenean Legeari buruz ari naiz; ez zaio errealitateari egokitzen, eta berrikusi egin behar da, zero baturakoa izanik gai konplexua bada ere.

Dakizuen moduan, joan zen otsailean erakunde arteko konpromiso bat formalizatu zen, 2018an zehar Ekarpenean Legeari inguruan akordio berria lortzeko.

Era berean, azpimarratzekoa da Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Lege berriak ezartzen duena bete beharra; horretan, izan ere, Autonomia Erkidegoko maila instituzionalen eskumen eta finantzaketaren analisi orokor bat jaso behar izan da.

Garbi dugu ereduaren berrikuspen sakonak denbora behar duela. Horregatik, gure proposamena Egokitzapenerako Funtz Orokorra sendotzera bideratu da hasieratik, ereduaren funtzionamendua bermatzeko, hau da, sarrerek lurralde historiko bakoitzari esleitutako koefiziente horizontalaren % 99ra iristea bermatzeko, berrikuspen prozesuak hartzen duen denboran zehar.

Eta 2015, 2016 eta 2017an Egokitzapenerako Funtz Orokorra behar bestekoa izan bada ere sarrera maila horri eusteko, sendotu egin behar dugu, eredia berrikusten dugun bitartean funtzionatzen segitzea bermatzeko.

3.2. Gizarte zerbitzuen mapa

Segidan, bigarren proiektu estrategikoari helduko diot: gizarte zerbitzuei.

Dakizuen bezala, Gipuzkoak egoitza-sare garrantzitsua dauka gaur egun. Zehazki, adinekoentzako 61 egoitza-unitate dauzkagu,

psikogeriatriako 31 unitate, eta egoitza soziosanitarioko bi unitate-zentro. Legegintzaldi honetan zehar 178 plaza berri sortu ditugu egoitza horietan. Era berean, adinekoentzako 63 eguneko zentro dauzkagu; horietan beste 85 plaza ireki ditugu hiru urte hauetan zehar.

Legegintzaldiaren hasieran konpromisoa hartu genuen adineko pertsonak artatzeko 300 plaza sortzeko. Bueno, esan dezakegu plaza horietatik % 88 zabaldu ditugula dagoeneko.

Dakizuen bezala, Kabia organo autonomoa, pixkanaka, lurraldeko udal egoitzak ari da biltzen bere egituraren barnean. Datorren urterako, egoitza horietatik 16 egongo dira jada Kabian sartuta, 1.505 plazarekin eta 300 langilerekin.

Kopuru adierazgarrienekin segituz, gogoratu behar dugu mendekotasun aitortua duten pertsonak 28.800 direla, eta horietatik % 82k foru zerbitzu edo prestazioa jasotzen dutela. Azpimarratu behar, gainera, 16.000 baino gehiago direla prestazio ekonomikoak, beste zerbitzu batzuekin bateragarriak, jasotzen dituztenak; horrek guztiak, aurten, 60 milioi eurotik gorako inbertsioa eskatuko du.

Zerbitzu horiez gain, azpimarratuko dut 734 adinekok aldi baterako egonaldiak egiten dituztela, eta 2.417k laguntza-produktu eta tresnak erabiltzen dituztela eta etxean zaharberritze lanak egin dituztela.

Garrantzitsua da gogoratzea etxeko laguntza zerbitzuari buruz Gipuzkoako udalekin iritsitako akordioa, zerbitzuak % 50ean kofinantzatzekoa; akordio honi esker, zaintza beharrean diren 4.000 pertsona ingururi etxean bertan ematen zaien arreta hobetzen ari baikara.

Horri guztiari esker, arreta jasotzen duten eta mendekotasuna duten adineko lau pertsonatik hiru beren etxean mantentzen dira. Hori bat dator adineko pertsonetatik % 80 baino gehiagok arreta etxean jaso nahi dutelako datuarekin, eta horrenbestez lehentasunezko helburua da Aldundi honentzat.

Helburu hori gogoan, Etxean Bizi programa aktibatu dugu, Etorkizuna Eraikiz-en barnean. Programaren xedea da bermatzea mendekotasuna duten pertsonak beren etxeetan bizitzen segitu ahal izatea, horretarako beren komunitatearen partaidetza lortuta.

Aurten ere handitu egin da mendekotasuneko prestazioetarako partida, 4,4 milioi gehitu baitzaizkio. Horrela, prestazio horiek jasotzen dituzten 10 pertsonatik 6k ekarpen handiagoak hartuko dituzte.

Mendekotasun prestazioen araudi berrituari esker, mendekotasuna duten pertsonen zainketaren kalitate bermea hobetuko dugu, datozen aldaketa demografikoen ondoriozko eskariari aurrea hartuz, zaintzaile familiarren formazioa eta laguntza hobetuz eta mendeko pertsonaren egoeraren jarraipen indibidualizatua eginez.

Azpimarratzekoa da Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (LPPE) aldeko apustua sendotzen dugula baita ere. horrekin 250 lanpostu berri sortuko baitira. Esanguratsua da laguntzaile pertsonala kontratatzeko Espainiako Estatuan ematen diren prestazio guztien % 85 Gipuzkoan ematen direla.

Gizarte zerbitzuen atala amaitzeko, Elkar-Ekin-i buruz hitz egingo dizuet. Oso lotuta sentitzen naiz programa horri, eta harroen sentiarazten nauenetako bat da. Gizarteratze plan hori 2016ko ekainean abiatu zen, eta denbora-epe honetan zehar 3.000 onuradun izan ditu; horietatik 245ek lana aurkitu dute dagoeneko. Oso datu positiboa da, kontuan harturik lana lortu ahal izateko zailtasun handiak dauzkan kolektibo bati buruz ari garela.

Era berean, azken urte honetan 53 plaza berri sortu ditugu, gizarte bazterketa egoeran dauden, edo egoteko arriskuan dauden pertsonak artatzeko foru sarean.

Baina bada azpimarratu behar dugun gauza bat: ekonomiaren susperraldia iristen ari bazaigu ere dagoeneko, hainbat hamarkadatan zehar eraikitako gizarte babeseko eredu gabe askoz nabarmenagoak izango ziren krisiaren ondorioak gipuzkoar gizartean, estatuko eta Europako beste leku batzuetan bezala, eroste-ahalmenari, laneko prekaritateari, pobreziari eta desberdintasunari dagokienez.

Oso poztekoa da esan ahal izatea 11.200 gipuzkoar atera direla pobreziatik legegintzaldi honetan zehar. Baina lanean segitu behar dugu, pobrezia larriko edo gizarte bazterketako kasu larrienak kroniko ari direlako egiten. Ildo horretatik, migratzaile jatorriko kolektiboa da gizarte bazterketan erortzeko arrisku handiena duena. Ezinbestekoa da Gipuzkoak estrategia integrala izatea pertsona horiek gizarteratzeko. Horretarako Elkar-Ekin aktibatu dugu; estrategia bat da, balorazio egokia, jarraipen pertsonalizatua, prestakuntza ona, eta enplegu duin baterako aukera bermatzeko.

Elkar-Ekin Gipuzkoako lurralde osoaren apustua da, bai erakunde publikoena, bai eskualde agentziena, enpresen ezinbesteko inplikazioa ere badugula.

Gure iritziz, Elkar-Ekin da Europa osoan zabaltzeko arriskua dagoen xenofobiari aurre egiteko Gipuzkoak daukan antidoto nagusia.

Azpimarratu nahi dut Elkar-Ekin plan irekia dela, jende gehiago, agente gehiago sartzeko irekia, gizarte osoa inplikatu nahi duelako desberdintasun txikiagoko Gipuzkoa lortzeko helburuan.

Atal honekin amaitzeko, nahi nuke zuekin hausnarketa bat partekatu Gipuzkoako politika sozialei buruz. Gizarte politikaren arloko politika publikoak eta zerbitzu sozialak dira hazkunde ekonomikorako dugun gaitasunaren eta Gipuzkoak berezkoa duen elkartasuna sozialaren erakuskari egokienak. Erakunde guzti-guztien eta gizarte osoaren, baina bereziki gizarte ekimenaren ondorio arrakastatsua da hau dena. Honaino iritsita gaude eta, orain, etorkizunari begira jasangarritasuna bermatzeaz dugu gogoeta egin beharra.

Gure lurraldean gertatzen ari den aldaketa demografikoak biztanleriaren zahartzea dakar, eta horrek sekulako ahalegin ekonomikoa eskatuko dio sistema instituzionalari, gizarte zerbitzuetan izango den eskari-hazkundeari erantzuteko. Gainera, biztanleriaren zahartzeak eta jaiotza tasa txikiak erronka handia dakarkio gure lurraldearen lehiakortasunari. Eta denok dakigu lehiakortasuna eta zerga sistema egokia direla gure ongizate sistemaren funtsezko oinarriak. Migratzaile mugimenduek dakarten errealitate berria esparru horiekin batera ikusi behar dugu; enpleguaren bitartez gizarteratzea: horra hor erronka saihetsezina. Badakit, ondo jakin ere, debate zaila dugula hau. Inork ez du baratxo magikorik. Baina uste dut garaia dugula denon artean hitz egiten hasteko, denon arteko akordioak lantzeko, unean uneko interes partidistak alboan utzita, etorkizunean sistemaren jasangarritasunari jarraipena emango badiogu. Astero-astero ikusten ditugu kalean milaka pentsiodun, beren etorkizun ekonomikoaz kezkatuta. Oso identifikatua sentitzen naiz haien erreibindikazio gehienekin, eta kolektibo horrekiko elkarrizketa izaten jarraituko dugu, aurrerapenak egin ditzaten beren helburuak lortzeari begira.

Lehiakortasun – ongizate binomioarekin batera beste binomio bat behar dugu: erakundearen eta komunitatearen beraren erantzukizun partekatua. Euskadin eta Gipuzkoan dugun ongizatearen gizartea ez baitago ulertzerik komunitatearen faktorea aintzat hartu gabe. Faktore hori, beraz, erabakigarria izango da politika sozialen etorkizuna antolatzerakoan.

3.3. Hondakinen kudeaketa

Hiru urte hauetan nabarmendu beharreko beste aurrerapen bat hondakinen kudeaketaren arlokoa da. Izan ere, lehen esan dudan moduan, arlo honetan 180 gradu biratzeko puntuak gaude; legegintzaldiaren hasieran benetako arazoa zena, aukera bihurtuko dugu.

Gipuzkoak etapa bat ixten du erraustegia eta Ingurumen Gunean aurreikusita dauden gainerako azpiegiturak eraikita. Hain zuzen ere, gainditu beharreko iragan baten adibiderik onena dugu hondakinen kudeaketari buruzko eztabaida. Eztabaida hartan, izan ere, hondakinen kudeaketari buruzko bi ikuspegi antagoniko kontrajartzen ziren itxura batean. Sakonean, ordea, demokrazia ulertzeko bi ikuspegi kontrajartzen ziren benetan; kultura politikoa ulertzeko bi modu; politika publikoak ulertzeko bi modu kontrajarri; gatazkak konpontzeko bi modu. Azken udal eta foru hauteskundeek arrazoia eman ziguten, bai hondakinen kudeaketako zikloaren itxiera gisa gizarteari erraustegia aurkeztu genion alderdion, bai eta, batik bat, kudeaketa eredu bat inposatzea gure elkarbizitzarako sistemaren oinarriari eraso egitea zela pentsatzen genuen guztioi ere. Behin eztabaida hau gaindituta, hondakinen kudeaketa-eredu on bat osatzen ari gara eta, gainera, abiapuntu egoki bat jartzen ari gara, baita ere, gauzak eta arazoak elkarrizketa politikoaren bitartez konpontzeko.

Gipuzkoako Ingurumen Gunean aurreikusita dauden instalazioak erritmo onean ari dira eraikitzen, eta erraustegia urtebete barru hasiko da lanean, beharko duen probaldiaren ostean. Horrela, Gipuzkoa Europako herrialde aurreratuenen pare jarriko da, hondakinen kudeaketari dagokionez. Izan ere, azpiegitura berriek aukera emango dute gaikako bilketa zazpi eta zortzi puntu bitartean hobetzeko; horrela aise gaindituko dugu Europak 2020rako finkatutako % 50eko helburua. Gainera, kalkuluen arabera, Gipuzkoako Ingurumen Gunea abian jartzeak 250 lanpostu sortuko ditu, eta 45.000 etxe hornitzeko adina energia.

Proiektu hori Ingurumen Departamentuaren eginkizun garrantzitsuenetako bat bada ere, lan egiten ari gara, halaber, ur-hornidura sistema sendotzeko eta hondartzak era integralean kudeatzeko; eta, ekimen askoren bitartez, birziklatzea sustatzen ari gara, jasangarritasuna Gipuzkoaren ezaugarrietakoa izan dadin.

3.4. Donostialdeko metroa

Laugarren proiektua Donostialdeko Metroa da.

Gizarte aurreratuen garapen ekonomiko eta sozialak mugikortasun sistemen jasangarritasuna jarri du jarduera publikoaren erdigunean. Argi eta garbi, apustu sendoa egiten dugu garraio publikoaren erabilera handitzearen alde, ibilgailu partikularren erabilera banakatuaren aldean. Apustu honen barruan, giltzarria da tren garraioa garatzea gure herrialdeko eta lurraldeko mugikortasuna hobetzeko. Donostian aurreikusten diren Topoaren lerro berriak ez

dira onuragarriak izango donostiarrentzat bakarrik, Gipuzkoa osoarentzat baizik. Lehenbizi, lerro berri honek Donostia-Irun korridore osoari erantzuten diolako eta bertan bizi direlako gipuzkoar guztien ia % 60. Eta, bigarrenik, Loiolako Erriberako interkanbiadorea eraikiz, Euskotren eta Renfe-ren aldirietako sareak konektatuko ditugulako. Horrela, gure lurraldean dagoen mugikortasunerako eskari sozialari erantzuteko jauzi nabarmena emango dugu. Alde horretatik, garrantzitsua da nabarmentzea txartel bakarra ezartzeko Renfe-rekin hitzartu berria den akordioa.

Urtean 24,5 milioi bidaiaria hartzen dituen Lurraldebusen kasuan ere zenbait pauso egin ditugu, esaterako errepidezko bidaiari-garraiorako kontzesio berria lizitatzea Buruntzaldean. Berritu gabe 30 urte igaro ostean, horixe zen Lurraldebusen lineak berrantolatu eta modernizatzeko lurralde osoan falta zen azken kontzesioa.

Beste linea batzuetako hobekuntzei dagokienez, Debagoieneko lineen berrantolaketa osatu dugu, eskualdeko alkateek eskatuta, eta Pasaialdean Ospitaleetarako zerbitzua handitu dugu igande eta jaiegunetan.

Amaitzeko, bidegorrien arloan azpimarratuko nuke lurraldeko bizikleta-bideen sarea hobetzen segitzen dugula, esaterako Hondarribian, Amute eta Jaizubia artean, egiten ari garen lanez, edo eibartarren eskaera historikoari erantzutearren Eibarren eraikiko dugun bidegorriaz.

3.5. Pasaialdea biziberritzea

Pasaialdeko biziberritzea ere aurrera ari da egiten; lehen emaitzak ikusten ari gara dagoeneko. Joan zen maiatzean amaitu genuen Ondartxoko pasealekuko obra, San Pedron, eta urte amaieran bukatuko dira Herrerako geltokiaren eta Trintxerperen artean Eusko Jaurlaritza eraikitzen ari den oinezkoentzako pasealekuko lanak.

Zenbait urte zain eman ondoren, pasaitarrek ikusten dute biziberritzea aurrera ari dela egiten. Seguruenik ez nahi genukeen erritmoan. Baina bada plan bat, aurrekontua du, eta kontsentsua ere badago eskumena duten administrazio guztien artean.

Horrek guztiak aukera eman du Pasaia proiektu handi batzuentzako kokaleku izateko; horien artean dugu maila guztietan instituzioen inplikazioa eskatzen ari den Adin Berri. Hospitalillo deitutako zonan altxatuko da erreferentziako zentroa eta bertan, arreta emateaz gain, batez ere ikertu egingo du zahartzearekin lotutako guztia. Hospitalilloko aparkalekuaren eta Adin Berri egoitzaren proiektuaren erredakzio-taldea aukeratzeko deialdia martxan dago jada, eta

hilabete eta erdian esleitzea espero dugu. Bi obra garrantzitsu horiek 2019ko udaberrian lizitatuko direla uste dugu.

Pasaia Badi biziberritzeko eskualde mailako estrategiari dagokionez, 2 milioi euroko inbertsioak adostu ditugu berriro Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzungo udalekin eta Oarsoaldea garapen agentziarekin; horiek hiri espazioak, mugikortasun bertikala eta bidegorriak hobetzera, eraginkortasun energetikora eta garapen jasangarrira bideratuko dira.

3.6. Gipuzkoako kultur ekosistema

Kultur politikari dagokienez, izan diren lorpenetako batzuk azpimarratu nahi ditut. Esaterako, larunbatean Elías Querejeta Zine Eskola zabaldu zen Tabakalera, eta laster inauguratzekoa da, halaber, Euskadiko Arkitektura Institutu berria.

Koldo Mitxelena berria beste proiektu berezi bat izango da. Proiektu arkitektonikoa idazten ari dira jada, eta apirilerako prest egotea espero dugu, hain zuzen Liburutegia eta kultur zentroa birgaitzeko lanen lehiaketa ateratzeko. Europako liburutegi eredu aurreratuenak ari gara kontuan hartzen, eta eraikinaren egitura-arazoak konpontzeaz gain, espazio, zerbitzu eta ordutegi berriak izango dira.

Zaila da minutu gutxi batzuetan laburtzea kulturaren alde egindako lana. Beraz, azken ekimen bat azpimarratuko dut: lantzen ari garen kultur mezenasgoari buruzko foru arau proposamena. Horren xedea da kulturaren finantzaketa publiko eta pribaturako eredu europarrago baterantz jotzea.

Departamentu beretik pauso garrantzitsuak ari gara egiten turismoaren arloan; esaterako, turismo bulegoa finkatzen ari gara, Gipuzkoa barnealdeko gauzarik ikusgarrienak ezagutarazteko, eta horrela turismo-fluxuak banatu eta masifikazioa saihesteko.

Aldi berean, turismo-fluxuak etengabe hazten ari direla, Aldundia lankidetzara publiko pribaturako bideak ari da jorratzen sektorearekin. Ildo horretatik, turismo mahaiaren bitartez eztabaidak garatu eta analisiak sakondu ahal izan ditugu, gai garrantzitsu asko daude-eta argitzeko, hala nola azoka eta feria turismoa, biltzarrak, Explore San Sebastian Region marka berriaren ezarpena, eta turismoaren Gipuzkoako behatokia martxan jartzea.

3.7. Gipuzkoako biribilgunea

Bide azpiegituren esparruan, lanean ari gara legegintzaldiaren hasieran hartutako konpromisoen ildotik. Gipuzkoa lurralde

kohesionatuagoa eta hobeto konektatua egingo duten aurrerapenak lortu ditugu.

Obra garrantzitsuenetako bat Deskargan, Bergara eta Antzuola artean, egiten ari dena da. Datorren urteko martxoan amaituko da, eta horrenbestez osatuta geratuko da Gipuzkoako biribilgune deitua. Horrela, eskualde guztiak hobeto konektatuko dira elkarrekin, eta gipuzkoar orok ahalmen handiko errepide bat edukiko du bere herritik 15 km baino gutxiagora.

Lan hori izango dugu garrantzitsuena, bai maila ekonomikoan bai teknikoan. Izan ere, proiektua oso denbora gutxian gauzatzea ahalbidetu duten erabakiak hartu behar izan dira. Orain, obrak amaitzeko zazpi hilabete falta direla, jardueraren % 70 gauzatuta dago.

Bestetik, Deba eta Mutriku lotzeko errepidea hobetzeko proiektua lizitatu dugu. Obrak urte amaieran hasiko dira, Irungo lotune erdia egiteko proiektukoak bezalaxe. Proiektu honen bitartez trafikoa arintzea eta hirigunerako sarrera ahalbidetzea lortu nahi du Bidegik. Irunen beste sei milioi euro bideratuko ditugu Hego Ingurabidea eraikitzeko.

Beste proiektu bat enkargatu dugu, Azkoitia eta Urretxu arteko zatia hobetzeko.

Asko dira bide azpiegituretan egindako jarduerak, baina bereziki pozten gaituena zera da, urte hasieran finkatu genuen 45 euroko gastu-muga, AP-8 eta AP-1 erabiliz Araba eta Bizkairantz doazen gipuzkoarrei aplikatzekoa. Gure lurraldeko 5.000 gidari izan dira jada neurri horren onuradun, oso kopuru aipagarria inolaz ere.

Azpimarratu beharreko beste lorpen bat N-1 errepideko AT sistema da. Horrekin amaitu egin da Batzar Nagusiotan urtetan zehar izan dugun eztabaida. Neurri horri esker, kanpoko kamioiek lagundu egiten dute errepide hori mantentzeko ditugun gastuak ordaintzen, bakar-bakarrik zergadun gipuzkoarron zergen bitartez ordaindu beharrean.

Konbentzituta gaude, erabat, planteamendu egokia dela. Eta, horregatik, adituekin ari gara lanean, datu errealak emanaz, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaiari erantzun ahal izateko. Jakin badakigu bide judiziala gehiegi luza daitekeela eta, horregatik, foru arau berria aurkeztu dugu ganbera honetan, N-1eko kobrantza-sistema bermatzearen.

Bidegiri dagokionez, erakutsi dugu zeharo sozietate kaudimenduna dela. Ez du inolako zerikusirik, aurreko legegintzaldian Bilduk erakutsi

nahi izan zuen porrot egoerarekin. Are gehiago, kaudimen finantzario horri esker Antzuola-Bergara obra bere kargu hartu ahal izan du, eta beste 8 milioi inbertitu ditu AP-8an Irunen. Gainera, Bidegik jarriko ditu Gipuzkoako garraio zentrorako beharko diren 11 milioiak. Zentro horrek bostehun kamioilari baino gehiagori emango die zerbitzua, beste aukera bat izango da-eta mugan auto-ilarak gertatzen direnean.

Etorkizunera begira, proiektu berritzaileak bultzatzen segituko dugu, eta arreta berezia jartzen gure errepideen kontserbazioari. Ildo horretatik, aurten bertan 6 milioi euro inbertitu ditugu A-15eko tunelak egokitzeko, eta eguzki-indarrez elikatutako argi-puntuak jarri ditugu.

3.8. Gobernantza Onaren estrategia

Zortzigarren proiektu estrategikoa gobernantza onarena da. Gaur egungo testuinguruan desatxikimendu politikoa eta aldaketa bizkorrak dira ezaugarria. Horregatik, legegintzaldiaren hasieran partaidetzazko dinamika bat jarri genuen abian, pixkanaka-pixkanaka apustu eta proiektu eraldatzaile berriak sartzearren plangintza estrategikoan, Gipuzkoan ongizatea eta jasangarritasuna bermatzera begira. Eta bide horretatik Etorkizuna Eraikiz sortu zen. Gobernantza eredu ireki eta elkarlanekoaren oinarritzko ekimena da, eta gauzak egiteko modua eraldatzen ari da. Hain zuzen ere, estrategia berri honek lurraldeko 20.000 pertsona baino gehiagorekiko elkarlana ahalbidetu du.

Dakizuen moduan, Etorkizuna Eraikiz-ek gogoeta sustatu nahi du epe ertain-luzera begira, gobernantza ireki eta elkarlaneko baten bitartez politika publikoak birbideratzen laguntzearren. Agente anitzen arteko gogoeta-dinamika horrek epe luzera begiratzen du, eta gogoeta partekatua bultzatzen du, hainbat gai harturik aztergai, hala nola: lurraldearen etorkizuna, etorkizuneko erronken gaineko ezagutza sortzea eta transmititzea, ikaskuntza eta lehiakortasunean oso aurreratuta dauden polo eta eskualdeekin konektatzea, eta Gipuzkoan dugun kapital soziala eta jakintza aprobetxatzea.

Paradigma aldaketa bat ari gara ikusten. Iraganeko edo gaurko arrakastek ez dute etorkizuna bermatzen. Erronka demografikoak ditugu, ekonomikoak, sozialak eta ingurumenekoak, oso erronka handiak guztiak. Paradigma aldaketa horren aurrean, apustu eta proiektu eraldatzaile berriak jaso behar ditugu plangintza estrategikoan, Kudeaketa Plan Estrategikoa etengabe gaurkotuz eta epe ertain eta luzeko ikuspegiarekin jokatzuz.

Gauzak horrela, oso pisu handiko proiektu estrategikoak diseinatu eta martxan jarri ditugu, etorkizunean eragin handia izango dutenak,

esate baterako zibersegurtasunari, elektromugikortasunari eta klima aldaketari lotutako erreferentziako zentroak; hurrengo atalean arituko naiz horiei buruz.

Gainera, Gipuzkoa Lab-en bitartez proiektu esperimentalak bultzatzen ari gara, gure politika publikoetako batzuk doitu ahal izateko. Horien artean, langileek enpresetan duten partaidetza sustatzera zuzenduak nabarmentzen dira; dagoeneko 20 esperientzia inplementatu ditugu, eta 1.000 pertsona baino gehiago izan dira onuradun. Garapen handia izan dute, era berean, lana eta familia erantzunkidetasunaren bidetik batzea bultzatzeko esperientzia pilotuek ere; dagoeneko 30 esperientzia pilotu daude martxan, eta 6.000 pertsona baino gehiago inplikatuta.

Bestetik, komunitatearen auto-antolaketa-ekimenak, auzo-sareak eta hurbiltasuneko boluntarior-tza-ekimenak bultzatzearen, 2017an bost proiektu finantzatu genituen, 120.000 euroz.

Gipuzkoa Lab-en barnean Lurralde Garapeneko Laborategia ere jarri dugu martxan. Horretan gobernantza eredu berri bat adostu da eskualdeko garapen agentzien eta Aldundiaren artean. Horretan oinarriturik, ekonomia sustatzeko programen definizio eta garapen partekaturako prozesua abiatu da, eta pausoak egiten ari gara eskualde sareak sustatzeko, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen enplegarritasunari laguntzearen.

Era berean, 2016, 2017 eta 2018an hiru laguntza-deialdi jarri dira martxan, eragile ekonomiko eta sozialek, elkarlanean, eta Etor-kizuna Eraikiz-Gipuzkoa Lab-en esparruan, proiektu berritzaileak bultza ditzaten. Zehazki, hiru ekitaldi horietan 2 milioi euro inbertitu dira, 60 proiekturi laguntzeko.

Ikusten duzuen moduan, lanean ari gara lurraldea oro har eta bertako agenteak Etor-kizuna Eraikiz-en protagonista izan daitezen. Eta, horretarako, funtsezko Think Tank garrantzitsu bat ere aktibatu dugu. Horretan 100 pertsona baino gehiago ari dira lanean, proiektu estrategiko eta esperimental berriak abian jartzeko balio behar duten eztabaida eta gogoetarako zenbait gunetan.

Eta Gipuzkoa gure etorkizuneko erronken arabera eraldatzeko apustu horrek etxetik bertatik hasi behar du, ezin bestela izan. Instituziotik beretik. Datorren hilean onartuko dugu Aldundiak, duela hamarkada bat baino gehiagoz geroztik, egingo duen lehen enplegu eskaintza publiko masiboa; 330 plaza baino gehiago izango dira, eta azterketetarako deialdiak pixkanaka egingo dira, datozen hiru urteetan zehar.

Erabaki hori mugarrria izango da modernizazioaren ikuspegitik, zeren eta etorkizuneko Aldundia eraikitzeke oinarriak sendotuko baititu, gizartearen eskaera eta behar berriei hobeto erantzunez.

LEP hori giltza izango da bitartekotasuna murrizteko, etxeko langileek metatutako esperientzia baloratuko da eta. Gainera, profil berriak jaso ahal izango dira, gazteak, eta talentua belaunaldi-ordezkatzera begira; izan ere, datozen zazpi urteetan zehar 900 baino gehiago izango dira erretiroa hartuko duten foru funtzionarioak, hau da, foru langileen plantillaren erdia gutxi gorabehera.

3.9. Kultura politikoa eta demokrazian sakontzea

Legegintzaldiko Plan Estrategikoaren bosgarren helburua bizikidetzaren sendotzea da. Horretarako lanean ari gara Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritzatik.

Legegintzaldiko helburua dugu bizikidetzaren sendotzea, ez baina bakarrik baktezari dagokionez, baizik eta baita aniztasuna era positibo batez kudeatzeko unean ere. Eta horretarako, etorkizuneko Gipuzkoa denon artean eraikitzeke, sakondu egin behar dugu gure kultura politikoan, balioetan oinarritutako kultura baita, demokratikoa, eta giza eskubideen urraketaekin kritikoa.

Egunero-egunero lanean ari gara Gipuzkoa berdinzaleago baten, bazterketari aurre egiten dion baten alde.

Gure azken helburua zera da: Gipuzkoa izatea desberdintasun maila txikieneko europar lurraldeetako bat; bazterketa sorrarazten duten egoerei aurre egitea; eta lurralde kohesionatuagoa izatea, giza eskubideak errespetatzen eta babesten dituzten pertsona askez osatua.

Jarduera-esparru nagusiak hiru izan dira:

Lehena, Bakerako Bizikidetzaren. Bizikidetzaren Lantzen programaren bitartez, guztira 24 udalerriri aritu dira bakoitzaren errealitateetik bizikidetzaren berreraikitzeke prozesuan. Prozesu horiek solasetik abiatu dira, akordio politikotik, eta ardatz bat izan dute gidari: giza duintasuna eta konpromisoa, hau da, konpromisoa giza eskubide guztiak defendatzeko, konpromisoa indarkeriaren bidegabekeria berriaz aitortzeko, biktima guztien eskubideekiko, bizikidetzaren demokratikora bideratutako memoriarekiko, normalizazio politiko eta birgizarteratzearekiko.

Bizikidetzaren Lantzen programari buruzko oso balorazio positiboa egin dute garatu dutenek. Programak agerian jarri du oraindik gauza asko ditugula hitz egiteko, indarkeria urteek eragotzi egin baitute solas hori; eta agerian jarri du, halaber, gure bizikidetzak ezinbesteko

duela etorkizunean gure erronkei eta gure helburuei bide demokratikoetatik ekiten jakitea. Hau da, beste kultura politiko baten bitartez ekiten jakitea. Horregatik Bizikidetzaren Lantzen-ek, orain, kultura politiko demokratikoan sakontzea jasotzen du bere printzipioetan.

Ahaleginak bildu ditugun bigarren esparrua Aniztasuneko Bizikidetzarena da. Horretarako, berdintasuna sustatzen eta bazterketaren kontra borroka egiten duten ekintzak baliatu ditugu. Zentzu zabalean lantzen da aniztasuna. Hau da, pertsonen jatorriarekin, etniarekin, genero identitatearekin, sexu orientazioarekin, erlijioarekin edo gaitasun funtzionalarekin lotutako aniztasuna, besteak beste.

Jakin badakigu, osterantzean, aniztasun ikusgarrienetako bat, lan espezifiko behar duen bat, jatorri, kultura eta etniarekin lotua dela. Kultur aniztasuna. Eta aniztasun horri erantzukizunez heldu behar zaio.

Hirugarren jarduera-esparruak harreman estua du giza eskubideekin eta bizikidetzarekin. Kultura Politiko eta Demokrazia Sakontzeko Programa da. Puntu honetan, tartetxo bat egin nahi dut Hondarribiko azken Alardean sortu ziren tentsio larriei buruz. Izan ere, gertakari horiek inoiz baino garbiago utzi zuten ezinbestekoa dela enfrentamenduak gainditzea eta lanean jarraitzea legealdi hasieran abian jarri genuen bidean. Hau da, baldintzak sortzen ikuspegi kontrajarriak elkar errespetatzera iritsi daitezten.

Gure helburua sistema demokratiko sendo eta zorrotza eraikitzen laguntzea da, indarkeria berpiztuko ez den eta giza eskubideen babesa aingura izango duen etorkizuna finkatzearen.

Programa hori 2016an abiatu zen, Batzar Nagusietako alderdi politikoen arteko eztabaidarako foro bat sortuta. Horretan, Gipuzkoako Kultura Politikoari buruzko azterketaren lanak adostu ziren. Eta, ikerkuntza eta sozializazio faseen ondotik, aurten bi proiektu pilotu jarri ditugu martxan, gazteei zuzenduta.

4. ETORKIZUNEN ERONKAK: SEI ERREFERENTZIA-ZENTRO GIPUZKOARAKO

Ondoren, Etorkizuna Eraikiz estrategiaren esparruan Aldunditik bultzatzen ari garen sei erreferentzia-zentroak izango ditut hizpide. Horiek osatzen dute agenda politiko berria, foru gobernuaren ekintzak ardatz duen agenda; eta horien bitartez aurre hartu nahi diegu lurraldearen etorkizuneko erronkei.

Lehenago adierazi dizuedan moduan, Gipuzkoak gainditu egin ditu iraganeko arazoak eta eztabaidak, eta ekonomiaren susperraldian bete-betean sartuta gaudela, gipuzkoarrok etorkizunean dugu fokua.

Erreferentziako zentro horien eraikuntzak ez dio berez Aldundiaren beraren borondateari erantzuten, baizik eta Gipuzkoako gizartean agenda politikoa eraldatzearen alde nabarmendu den borondate edo eskariari. Berdintasuna, elektromugikortasuna, zibersegurtasuna, zahartze aktiboa edo klima aldaketa dagoeneko herritarren agendan txertatuta daude, gure lurraldeko erakunde askoren agendetan txertatuta daude; eta Europako erakundeek emandako jarraibideetan edo Eusko Jaurlaritzaren RIS 3 estrategian txertatuta daude.

Agenda politiko berri bat jarri beharra dugu abian, eta funtsezko gauza batzuk oso kontuan hartuta daukagu abiarazi beharra. Lehenbizi, lurraldeko indarguneak izan behar ditugu kontuan; politika publikoek aintzat hartu behar dituzte lurraldean dagoeneko garaturik dauden indarguneak. Bigarrenik, elkarlaneko gobernantza bat daukagu eratu beharra halako proiektuak aurrera eramateko. Eta, hirugarrenik, bokazioa dugu proiektuok lideratzeko, gehienetan bertan-bertakoak diren proiektuok lurraldetik eta Foru Aldunditik lideratzeko. Zergatik? Sinesten dugulako Gipuzkoaren sendotasuna ardatzetako bat dela erkidegoak behar duen lurralde orekarako.

Epe ertain eta luzeko apustuak egin ditugu, zazpi urterako 65 milioi euroko aurrekontuaz, eta horren bitartez biharko Gipuzkoaren oinarriak jartzeko proiektuak ari gara bultzatzen.

2018ko urte hau erabakigarria izaten ari da, Etorkizuna Eraikiz estrategiaren esparruan definitutako proiektu estrategikoak zabaltzera begira.

Inbertsio horri esker, eta beste erakundeekiko elkarlanean, sei erreferentzia-zentro sortzen ari gara. Adin Berri, Ziur, 2dO, LABe, elektromugikortasuna eta klima aldaketaren kontrakoa dira.

Hurrengo minutuetan horietako bakoitzari buruz arituko naiz.

4.1. Adin Berri

Adin Berri dugu erreferentziako lehen zentroa. Biztanleriaren zahartzeari aurre egiteko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko estrategia integrala da. Ezinbestekoa alegia, are kontuan hartzen badugu ezen, kalkuluen arabera, 2031n 55 urtetik gorako pertsonak Gipuzkoako biztanleriaren ia-ia erdia izango direla.

Gizartea zahartzen ari da, eta premiazkoa da neurriak hartzea. Horregatik, Adin Berrik erantzun aurreratua eman nahi dio sakoneko

arazo horri, erronka horrek, ikuspegi ekonomikotik, eskaini dezakeen aukera ere aprobetxatuta.

Proiektuaren azpiegitura nagusia zahartze eta mendekotasunaren arloko erreferentziako zentro berritzaile bat izango da, Pasaian egongo da, eta 2022an hasiko da lanean, hiru urteko obren ondoren. Edonola ere, proiektuko berrikuntza-unitatea, funtsezko elementuetako bat bera, urte amaieran hasiko da lanean.

4.2. Ziur

Etorkizuna Eraikiz-etik bultzatutako bigarren erreferentziako zentroa Ziur da, Gipuzkoako Industria Zibersegurtasun Zentro aurreratua.

Dakizuen moduan, zibersegurtasuna dugu esploratu beharreko etorkizuneko beste erronketako bat. Laugarren industria iraultza iristen ari zaigularik, gure industria indarrez ari zaio ekiten produkzio eta kudeaketa sistemak digitalizatzeari. Baina konektagarritasuna areagotze horrek mehatxu batzuk ere badakartza, segurtasunarena tartean.

Ildo horretatik, Ziur-en eginkizuna zera da, industriaren sektorean eragingarri aritzea eta zibersegurtasunaren garrantziaren kontzientzia hedatzea; izan ere industriaren sektoreak Gipuzkoako BPGaren % 27 egiten du, eta lurraldeko hiru lanpostutik bat industriakoa da.

4.3. 2deo

Etorkizuna Eraikiz-etik bultzatzen ari garen hirugarren zentroa 2deo da. Euskarazko ikus-entzunezko edukiak sortzeko laborategia da, Tabakalerarena. Gure hizkuntzan sortutako ikus-entzunezkoen ekosistema sortzeko eta dinamizatze helburua du.

Zalantzarik ez dago edukiak kontsumitzeko modua erabat aldatu dela. Gure gazteak sare sozialei konektatuta bizi dira, horietarako dispositiboan bitartez jasotzen dute informazioa, eta horiexen bidez dibertitzen dira, planeta osoko ikus-entzunezkoak kontsumituta.

Euskararen etorkizuna blindatu nahi badugu, gure hizkuntzak tokia egin behar du mundu horretan, ezinbestean; horrela lagundu egingo du, gainera, gazteek kalean komunikatzeko balioko dien erregistro bat izan dezaten.

Etorkizuna Eraikiz proiektuaren esparruan lurraldearen erronkak aztertzen hasi ginenean, argi genuen euskarazko ikus-entzunezkoena kontuan hartu beharrekoa zela. Behar hori are garbiago ikusi genuen, UPV/EHUK egindako azterketa bat ezagutu genuenean; horren arabera, gazteek gaztelaniazko ikus-entzunezkoak kontsumitzen

dituzte, batez ere euskarazko bestelako aukerarik eta edukirik ez dagoelako. Dena den, gazteek aldeko jarrera erakusten zuten, euskarazko horrelako produktuak kontsumitzeko. 2deko hutsune hori betetzen laguntzeko jaio da. Eta Tabakaleran jardungo du, kultur edukiak sortzeko eta zabaltzeko lekurik onenean.

2deko laborategiak 500 metro koadroko instalazioak edukiko ditu. Horietan elkarrekintzarako espazio irekiak egongo dira, ikustaldi eta edizio zonak, eta laborategiko pertsonalarentzako lantokiak.

Dakizuen moduan, euskararen normalizazioa foru gobernu honen lehentasunen artean egon da, legegintzaldiaren hasieratik beretik. Eta, benetan, uste dut oso jauzi garrantzitsua egin dugula Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritzatik. Orain arteko lorpenetako batzuk aipatuko ditut laburki.

Hasteko, Euskararen Normalizaziorako VI. Plana onartu dugu eta, Euskararen Foroaren barnean, Etorkizuna Eraikiz-en esparruan, proiektu berria ari gara diseinatzen, sektorearekiko elkarlanean, euskara hizkuntza sendoagoa egiteko.

Elkarlana eta berrikuntza. Horiexek izan dira gure lanerako zutabeak, eta emaitzak lortzen ari gara dagoeneko. Ez ditut denak aipatuko, baina sektorearekin adostu dugun eredu berria azpimarratuko nuke, euskaraz lan egiten duten medioen finantzaketa publikora zuzendua.

Liskar politikoetatik urrun, dagokion bidera eramaten ari gara euskara. Eta emaitzak lortzen ari gara. Horietako bat Gipuzkoa Berdinago-ren esparruan lortu dugun akordioa: beren komunikazio publikoetan euskararen aldeko jarrera proaktiboa izateko konpromiso publikoa hartu duten enpresa, elkarte eta erakundeek sinatutakoa.

4.4. LABe

Laugarren zentroa LABe da, gastronomia digitaleko berrikuntza laborategia; hori ere Tabakaleran kokatuko da.

Gipuzkoa mundu osoan da ezaguna bere sukaldaritzagatik. Izan ere, mundu osoan Michelin izar gehien duen lurraldeetako bat da. Gipuzkoako 10 jatetxek dute, gaur egun, bereizgarri hori.

Baina gure gastronomia askoz gehiago da. Gure historiaren parte da, gure identitatearen parte, erreibindikatu behar dugun DNA gipuzkoarraren parte. Alabaina, estatus hori ahultzen joan daiteke, beste ezer egiten ez badugu. Orain arte ondo aritu gara, baina horrek ez digu etorkizuna bermatzen, berrikuntzara jo ezean. Egungo mundua etengabeko iraultza digitalean murgilduta dago. Hori sektore guztietara iristen ari da, eta gastronomia ez da salbuespena.

Premisa horretatik jai da LABe, Tabakalerako prisma gastronomia digitaleko berrikuntza laborategi bilakatuko duena. Azpiegitura abangoardista izango da, esparru horretan Gipuzkoa nazioarteko erreferente bihurtzera bideratua.

Azpiegitura berria 2019ko lehenengo seihilekoan egongo da operatibo, eta tartean jate digital bat izango du. Aurreikusten den inbertsioa 2,3 milioi eurokoa izango da.

4.5. Elektromugikortasuna

Bosgarren erreferentzia-zentroa elektromugikortasunari lotua da. Dakizuen bezala, Eusko Jaurlaritza espezializazio adimentsurako estrategia industrial ari da bultzatzen, RIS3 deitua, Europar Batasunak planteatutako jarraibideekin bat.

Espezializazio arloetako bat energiarena da. Horretan Gipuzkoak gaitasun teknologiko eta industrial handiak dauzka, energiaren metaketaren eta elektromugikortasunaren ikuspegitik. Horregatik, erreferentziako zentro bat abian jartzea sustatu dugu, enpresak eta zentro teknologikoak biltzeko eta asmo handiko proiektuak bultzatzeko, arlo horretan eta nazioarte mailan Gipuzkoa erreferentzia izan dadin.

4.6. Klima aldaketaren zentroa

Klima aldaketaren kontrako borroka da mende honetako ingurumenak eta politikak duten erronketako bat. Eta Gipuzkoak dagoeneko bere agenda politikoa du erronka horri heltzeko, klima aldaketaren kontrako erreferentzia-zentroaren bitartez.

Gure lurraldea bereziki sentikorra da klima aldaketaren aurrean. Gipuzkoak ezin du beste leku batera begiratu. Horregatik, estrategia bat jarri dugu mahai gainean, gipuzkoar gizartearen inplikazio maila handitzearen. Klima aldaketaren kontrako erreferentzia-zentroak bizkortu egingo du trantsizio prozesua, balio publikoa sorraraziz eta ekonomia zirkularreko irizpideak aplikatuta.

5. EGOERA POLITIKOA

5.1. Aldaketa politikoak

Berdintasuna

Politika orokorrari buruzko osoko batzar honetan arreta berezia eskaini nahi diodan beste gai bat gizonen eta emakumeen arteko

berdintasunarena da. Nirekin bat etorriko zarete, esaten badut azken hilabeteotan gizarteak, aho batez, gaitzespen itzela adierazi duela emakumeen kontrako diskriminazioa eta indarkeria dela eta. Horrek agenda guztietako lehen postuetan jarri du berdintasuneko politika publikoen arloan intentsitate eta koordinazio handiagoz jardun beharra. Aukera garaia dugu oraingoa, eta aprobetxatu behar dugu, berdintasun politikak esparru guztietan bizkortzeko.

Emakumeen kontrako indarkeriek, eta bereziki genero indarkeriak eta sexu indarkeriak, denon arreta bereganatu dute gure lan esparruan, legegintzaldiaren hasieratik. Erabateko lehentasuna dira.

Horregatik, indarkeriaren kontrako plan bat edukitzen lehenak izan ginen, gure mailako erakundeen artean lehenak alegia, 2016an onartutako Aurre Planarekin. Arau garapena funtsezko pieza da, koherentzia eta iraunkortasuna ematen diolako jarduerari. Une honetan, Aurre Planak % 75etik gorako gauzatze irismena lortu du.

Aurre Planaren garapenaz gain, aurten beste ekimen batzuk bultzatu ditugu, gizarte berdinzaleagoa lortzeko, eta aipatu nahi nituzke horiek ere.

Alde batetik, Erantzun Publiko Instituzionala emateko Protokoloa jarri dugu martxan. Horrek aukera emango ditu, lehen aldiz, eraso sexistei eta sexu erasoei aurre egiteko Gipuzkoako udalekin eta herritarrekin koordinatuta. Gipuzkoak aho batez erantzuten du, bai informazioa jasotzeko unean bai arbuioa adierazteko ekintzetan.

Bestetik, koordinazio egitura bat sortu dugu berdintasun eta gazteriako agenteen artean, gure jarduera egoki bideratzearen. Gainera proiektu bat garatu dugu berrogeita hamar bat ikastetxerekin; horretan, eta 3.000 ikasle baino gehiagorekin, alderdi garrantzitsuak landu ditugu, esaterako indarkeria eta estereotipoak.

Azkenean, esparru honetan Think Tank bat aktibatu dugu adituekin, instituzioekin, akademia eta elkarteekin, emakumeen kontrako indarkeriaren arrazoietan sakontzeko.

Legegintzaldi honetan, berdintasunaren arloko politikaren garapenak kontziliario erantzunkidea izan du bigarren ildo estrategiko. Lehenik enpresaren esparruan hasi gara, lan ingurunea delako pertsonen bizitza egituratzen duen funtsezko faktoreetako bat. Eta, lehen aipatu moduan, lurraldeko erreferentziazko 30 enpresa parte hartzen ari dira, modu espermental eta pertsonalizatuan, proiektu pilotu batean, berdintasun politikak implementatzeko eta beren enpresa-kulturak aldatzeko. Berdintasun eta kontziliarioaren aldeko enpresen sarea

aurkeztu berri dugu, *Erantzunkide* sarea; horixe izango da jasotako ezagutza Gipuzkoako ekonomia-ehun osora zabaltzeko motorra.

Ekimen biak, proiektu pilotuak eta enpresa-sarea, kontzilio erantzunkiderako lehen Foru Planaren parte dira; plan horretatik sortu da, era berean, HerriLAB, lurraldeko Kontzilio Planean aurreikusten diren neurriak toki mailan inplementatzeko programa pilotua. Aurten, hitzarmen bat sinatu da Beasaingo Udalarekin, eta datozen hilabeteetan abiatuko dira jarduerak.

Bloke hau amaitzeko, labur bada ere beste bi lorpen aipatu nahi nituzke: kontratu publiko eta diru laguntzetan berdintasun klausulak sartzea finkatu izana batetik, eta 1.000 biztanletik beherako udalerriei berdintasun politikak garatzeko emandako laguntza bestetik.

Migrazioak

Azpimarratu nahi nukeen beste fenomeno bat migrazioak dira. Aldaketa soziokulturala eragiten ari dira gure herrialdean, eta gure lurralde historikoan. Fenomenoak zenbait erronka planteatzen dizkigu, eta heldu egin behar diegu horiei, gizarte kohesio handiagoa lortzeko, bazterketaren kontra borrokatzeko, eta Gipuzkoan bizi eta lan egiten duten edo beren bizitza-proiektua Gipuzkoan garatzen duten pertsonen aukera-berdintasuna izateko.

Gure helburua da aniztasuna demokratikoki kudeatzeko politikak abian jartzea. Aniztasuneko Bizikidetzarako Plana abiapuntu ona da. Baina harago joan behar dugu, Gipuzkoa demokratikoagoa eta sozialki kohesionatuagoa eraikitzearen.

Eta, erantzukizunetik eta konpromiso humanitariotik, lagundu egin behar diegu gure lurraldetik igarotzen diren pertsonen.

Hedabideetan sarri ikusten ditugu pertsonak, milaka, ihesi, bizia arriskuan jartzen dutela Europaranzko bide luzean, gerratik, gatazketatik eta muturreko pobreziatik urrundu nahirik.

Astero irudi ikaragarriak ikusten ditugu, ontziak noraezean Mediterraneoan, Europa aberatseko estatuak atea noiz zabalduko zain; eta hori beren helmugara iristeko egiten duten bidaiak beldurgarri eta luzearen parte bat besterik ez da. Pertsona horietako asko izan dira, eta dira, Europa iparralderanzko bidean Gipuzkoa zeharkatu dutenak. Erakundeetatik egoerari erantzuten, laguntza humanitarioa ematen saiatzen gara. Denbora gutxian baliabideak sortu dira, baina estaldura handiagoa eskaintzea gustatuko zitzaigukeen.

Gipuzkoa giza kapital handiko lurraldea da, solidarioa. Hemendik eskerrak eman behar ditud, pertsona anonimo, boluntario askok eskaintzen duten denbora eta lanagatik. Eskerrak Gipuzkoako Gurutze Gorriari eta dituen boluntario guztiei, eta eskerrak instituzioak iristen ez garen tokietan estaldura hori ematen ari diren elkarte eta erakunde guztiei.

Era berean, zeharo kezkatzen nau premia egoera horiez egin daitekeen erabilerak, baita erabilera politikoak ere; kezka eragiten dit beldurra sorrarazten duten mezuak, xenofobia areagotzen duten gezurrak ez ote diren diskurtso politikora iritsiko.

Gauza jakina da Gipuzkoara iristen diren migratzaile gehienek Europako beste herrialde batzuetara joan nahi dutela. Beraz, hemen egiten duten denboran zehar, larrialdi egoera horretan, arreta humanitarioa eskaintzea da kontua. Pertsona horiei laguntzarren, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, Irun eta Donostiako udalek eta Gurutze Gorriak osatutako Erakunde Arteko Mahaiak larrialdiko aldi baterako harrera zerbitzua prestatu du.

Aldi berean beste neurri batzuk aktibatu dira, Gipuzkoan bizitzea erabakitzen duten lagundu gabeko adingabe atzerritarrei zuzenduta.

Testuinguru horretan, adingabeko horiei arreta emateko konpromisoa berresten du Aldundiak. Horien duintasuna funtsezkoa da. Horregatik, lan pertsonalari ematen diogu lehentasuna, lurraldean gizarteratzea eta laneratzea lor dezaten eta, horrela, beren bizi-ibilbidea gara dezaten.

5.2. Egoera politikoaren analisia

Politika orokorreko eztabaidako diskurtsoa amaitzeko, egoera politikoaren analisia egingo dut; eta lau kontu hartuko ditud nire hitzen ardatz: lehenik, ETA osteko denbora eta bizikidetza; bigarrenik, euskal gatazka politikoa bere horretan mantentzea; hirugarrenik, politikaren krisia eta gobernantza modu berriak eta, azkenik, garai aldaketa eta agenda politiko berri bati ekin beharra.

ETA osteko denbora eta bizikidetza

Urte askoan zehar, ETAREN indarkeria eta erreakzio gisa sortutako beste indarkeria batzuk izan dira eztabaida eta ekintza politikoaren ardatz nagusia, Euskadin eta Gipuzkoan. ETAREN indarkeria, suntsitzailea izan da gizartearen bizikidetzarako, eta oztopo gaindiezina gure herrialdearen demokrazia nahiak garatzeko: biktima errugabeak, familia osoak txikituta eta izugarrikeria haren ondorioak jasan dituen, jasaten segitzen duen herria eta gizartea.

Euskal gizartearen parte handi baten sozializazio politikoa testuinguru horretan garatu da. Egia da Ezker Abertzalearen bide estrategiko berriak eta ETA desegin izanak egoera itxaropentsu batean sartu gaituztela, eta horretan aurrera egin dezakegula normalizazio sozial eta politikoan. Eta bidea luzea bada ere oraindik, pauso garrantzitsuak ari gara ematen, bai terrorismoaren biktimei eragindako kaltea aitortzeko, bai horiei ordain morala eta materiala eskaintzeko.

Euskal gizarteak sekulako pisua kendu zuen gainera indarkeria desagertzean eta, gaur, hanka sartzeko beldurrik gabe, esan dezakegu biktima guztiekiko errespetua eta afektua orokorra dela, eta gizarteak ulertzen duela, eskuzabaltasunez gainera, bizikidetzako etorkizuna eraikitzea ahalbidetzeko neurri politikoak hartu behar direla (bizikidetzaren programak edo espetze politika).

Baikorra naiz horretan. Prozesu dinamikoa ikusten da. Agian ez nahi genukeen adina, baina bidea ari gara egiten. Denborak kudeatzea ez da kontu samurra.

Testuinguru horretan, ohar bat egin nahi nuke: arriskutsua da indarkeriarekin eta indarkeriaren ondorioekin zerikusia duten gaiei alderdikeriazko erabilera ematea. Ez ditut indarkeria kontuak politikatik bereizi nahi, ezta politikako gaurkotasunetik ere; espazio partekatu bat sortu nahi dut, eduki demokratikoz osatu bat, aukera politikoan aniztasuna jaso ahal izatearren bertan. Bestela, ezinezkoa izango da oinarri komun batez bizikidetzaren eraikitzea.

Testuinguru honen emaitzaren adibide ona dugu Altsasuko 8 gazteen kasua; zeharo neurririk gabe zigortu ditu Auzitegi Nazionalak, justiziaren esparrua gainditzen duten kontsiderazio batzuetan oinarrituta gainera. Eta euskal eta gipuzkoar gizartearen harri eta zur ari dira ikusten gertatua, ezintasunez.

Ez diot balio izpirik kenduko bake eta bizikidetzarako diskurtso instituzionalari, ezta arlo publikoan garatutako jardueraren testimonialari ere, baina etorkizunean ezinbestekoa izango dugu demokrazia zibikoaren balioei tinko atxikitako herritarrak izatea.

Euskal gatazka politikoa bere horretan mantentzea

Batzuentzat ETA desegitearekin eta demokraziaren mugak legezkotasun konstituzionalak ezartzen dituela eta horretatik kanpo ezer ez dagoela esatearekin amaitzen da euskal gatazka.

Urte askoan zehar, indarkeria helburu politikoak erabiltzeak eragiten zuen haustura etiko eta demokratikoan bildu da eztabaida. Gaur egun beste puntu batean dago eztabaida. Gure patuaren jabe al gara?

Konstituzionalismoak 155arekin erantzuten dio horri. 155a eta dituen ondorioak bi prozesu antagoniko ari dira sortzen: Kataluniako herritarren gehiengoaren desatxikimendua 1978ko sistema konstituzionalaren zilegitasunarekiko, eta kudeaketa politikoaren ikuspegi zentralizatzailea sendotzea estatu egituretan. Jarrera antagoniko horiek finkatzen badira, Kataluniako gatazka politikoak belaunaldi batzuk hartuko ditu.

Euskadin une politiko desberdina ari gara bizi izaten, baina Eusko Legebiltzarrak oinarriak onartu ditu, jurista aditu talde batek testu artikuluduna proposatu ahal izan dezan eta, horrela, gure erkidegorako oinarrizko arau instituzional berria izan dezagun. Kontsentsurik zabalena lortzen ahalegindu behar dugu, aniztasuna integratzeko eta arlo sozialean eta demokratikoan arau aurreratu bat finkatzeko. Baina ezin dugu onartu euskal herriak bere etorkizuna erabakitzeko eskubiderik ez duenik, ezta eskubide hori erabiltzeak euskal gizartea zatitzen duenik, edo gatazka elikatzeko bidea denik.

Garrantzitsu deritzot gure herri gisako etorkizunari buruzko eztabaida Eusko Legebiltzarrean egiteari, interferentzia antidemokratikorik gabe. Horrelako aukerarik ez baitzen duela oso gutxi arte. Eta behar duen unean ari da gertatzen. Euskadin premia dugu sistema instituzionala estrategia propio batetik gaurkotzeko, eta iritzi publikorako espazio propioa finkatzeko. Eta egiten dudan proposamenak behar du hiru elementu bat etortzea, horiek gabe ezinezkoa delako helburura iristea. Lehen elementua erabakitzeko askatasuna da, bigarrena eraldaketa instituzionalean aurrera egiteko gaitasuna, eta hirugarrena gizarteak eta instituzioek partekatutako aitzindarritza. Ezingo dugu aurrera egin, gure etorkizunaren jabe ez bagara, paralisi instituzionalean geratzen bagara edo gizartea kontuan hartzen ez badugu.

Oso labur bada ere, ahortzi nahi ez dudan kontu nagusi bat aipatu nahi dut: estrategia kontua. Elkarrizketa politikoa eta akordioa dira bidea, ez dago besterik. Horrela da. Baina gauza bat: euskal gizartearen erabakitzeko eskubidea instituzionalizatzea posible izango da, bakar-bakarrik eskubide horren alde aktibatutako errealitate sozial eta politikoak esparru konstituzionala interpelatzen duenean. Eta, eskaera zilegi gisa ez ezik, errealitate jada eratu eta ezinbestez legez aitortu beharreko gisa egiten duenean. Eta prozesu horrek oinarri izan behar ditu lana, konbentzimendua, jarduera eraldatzailea, eta gure herriaren handitasun zibikoa erakusten duten balio demokratikoak.

Politikaren krisia eta gobernantza sistema berriak

Diskurtsoko puntu honetan hirugarren elementu bat sartu nahi nuke eztabaidarako. Politikaren krisia da. Krisia ondoen definitzen duen

esaldia zera da, "nik politikaz paso egiten dut". Denok dakigu, agerikoa da, gaur egun desatxikimendu handia dagoela sistema politikoarekiko, sistema instituzionalarekiko.

Herritar haserretuak ditugu. Haserre horretatik dator diskurtsoetan, eztabaida politikoan, eta arduradun politiko eta herritarren arteko komunikazioan ikusten ari garen populismoaren gorakada. Politika politikari profesionalen kontua besterik ez delako ideia ari da finkatzen. Eta atxikimenduak lortzeko borrokan, inpaktu emozionala bilatzen da, titularrak, hipersinplifikazioa, lokatzetan egiten diren borrokak, oso ikusgarriak eta politika teatro huts bihurtzen dutenak, erreala eta benetakoa ezkutaturik ordea.

Letra larriz idatzitako politika erreibindikatu nahi dut, herritarren ahalduntzea, aktibo politiko eta kritikotzat. Politikaren konplexutasuna erreibindikatu nahi dut; eta erronketan sakondu beharra; eztabaidak partekatu beharra; politikarentzat denbora bat finkatu beharra, berehalakotasunari lotzeke; eta komunitatearen balioa erreibindikatu nahi dut, demokrazia zibikoa sendotzeko elementu gisa.

Horregatik, uste dut elkarlaneko gobernantza tresna bikaina dugula, eta Etorkizuna Eraikiz proiektua modu eraginkorra dela foru erakundearen eta gipuzkoarren arteko komunikazioa hobetzeko.

Garai aldaketa eta agenda politiko berri bati ekin beharra

Amaitu behar dut jada. Garai aldaketa bizi izaten ari gara. Atzean laga dugu indarkeria eta bizikidetzarik eza nagusi ziren egoera politikoa. Krisi ekonomiko latza igaro dugu, eta hasiak gara horretatik ateratzen. Mundu berria dugu parean: globalizatua, ekonomia digital, ireki eta lehiakor batean murgildua, eta gure harremanak eta errealitatea eraikitzeko gure modua eraldatzen duena.

Gizakion eta arduradun politikoon funtsezko kezkak berberak dira: aukera berdintasuna, askatasuna, herritarren bizi-kalitatea, garapen kolektibo harmonizatua, eta bazterketa arriskuan dagoena jasotzeko gai izango den gizarte elkartasuna. Baina testuingurua aldatu egin da, eta denok galderak egiten dizkiogu geure buruari, etorkizunaren inguruan.

Geure etorkizunak, geure seme-alabenak kezkatzen gaitu. Pentsiorik izango ote den, lanarekin zer gertatuko den, etxebizitzarik edukiko

ote dugun, nork zainduko gaituen adinean aurrera goazenean, edo gure hizkuntza zertan izango den.

Etorkizunak kezkatzen gaitu. Ziurgabetasun mailak altuak dira, eta halako segurtasun falta bat ere badago. Ekonomikoki Herrialde eta lurralde aurreratua eta sozialki kohesionatua izaten segitu nahi badugu, heldu egin behar diogu etorkizunari. Atzean utzi behar dugu iragana, eta etorkizun berria eraiki.

Ez gara hutsetik abiatuko. Gipuzkoa egoera onean dago lanari ekiteko. Herritar askok ekin diote jada, erakunde eta enpresa askok. Orain agenda publikoa eta jarduera instituzionala akuilatu behar ditugu, eraikuntza partekatu hori bultzatzeko.

Gipuzkoa lurralde leiala da, langilea eta elkartasunezkoa. Gure ohiturei eta gure balioei eusten diegu, gogotsu gainera. Identitate politiko eta sozial sendoa dugu, ez baita ziurgabetasun testuinguruan desegingo. Asmo, nahi eta desira asko ditugu gainera, eta horrek mugitzera eta konforme ez egotera garamatza. Etorkizun hori elkarrekin marraztu eta eraikiko dugu. Elkarlanean, bestela ez da eraikiko. EKONOMIA, GIZARTE KOHESIOA, ANIZTASUNA eta BERDINTASUNA. Horiexek dira etorkizunean ardatz nagusi izan behar ditugunak.

Bada zaharturik geratu den agenda politiko bat; diskurtso eta eztabaida antzuak, inolako fruiturik gabeak; ezertara iristen ez diren politika egiteko moduak; paralisia beste atarramenturik ez duten liskar politikoak. Agenda berri bati ekin behar diogu, politika egiteko forma berriei, beharrezko esparru instituzionaletatik, gizartea ere proiektu komun honetan murgilaraziz. Belaunaldi bakoitzak ongi irakurri behar du dagokion garaia. Ez genuke aukera hau alferrik galtzen utzi behar.